

Liburuak

KRITIKA

Erlojuen mekanika. Jose Luis Otamendi.
Susa. 90 orrialde. 11,50 euro.

Helduen literatura
Igor Estankona



Egia dio

JOSE LUIS OTAMENDI itzal handiko poeta da, gure belaunaldia markatu duenetako bat. *Lur bat zure minari* (Susa, 1995) liburua giltzarri izan zen: idazkera dominatu egin behar zela orduan hasi ginen sumatzen idazle gazte asko, artean idazkerak berak dominaturik genbiltzanean.

Berandu hasi ginen han-hemenka bere mezuaren ezia irakurtzen, baina “tximeleta eri bat gelan sartu zaigu” hura, Deabruak Teilatuetan taldeak kantatua, profetikoa zen: tximeleta eri hori, idazkera bigun, apal, egiazko hori barruraino sartua daramagu honez gero, *Oto* irakurtzean sentitzen dugulako hezur-haragizko pertsona baten intimitatea ezagutzen ari garela.

Idazleak bihotza irekitzen duelako identifikatzen da irakurleak hainbeste berarekin, pazientziak, maitasunez, arnasa luzeko poema orekatu eta leunen bitartez ailegatzen zaigu, sakon, mezua: sentitzea, sufritzea, galtzea... ez da txarra. “Jendea gara eta jendeak jendeari jende izatea dio zor”, dio halako batean, bere Azpeitiaz ari den bitartean, Xabier Aldairi dedikatutako *Jendetasuna* poeman.

Horregatik potentzia berezi bat gordetzen du bere baitan *Erlojuen Mekanika*k. Pazientziaren potentzia da. Berba bat bestea baino lodiagoa erabili barik, estridentziarik gabe, xuxurlaka, Otamendik indar itzel bat lortzen du konposizioetan. Ilea lazteko modukoak dira, esate baterako, *Mundua* eta *Aberriaz zelan abaztu* poemak. Joseba Sarrionandiarengan bakarrik ikusi dut nik halako xamurtasuna, pentsamendu oso sinpleen bitartez munduaren bihotzera hurrera zaitzakeena. Pentsamendu horiek sortzen duten oreka uniformeak eta oso landua izateak, noski, badauka zerikusirik. Otamendik teknika poetiko itzela dauka, eta korrante bihur dezake ideien masa handia.

Baina, badiot, batez ere pertsona moduan egiten duen zintzotasun ariketa iruditzen zait dela klabea: irakurleak hasierahasieratik daki idazlea egia esaten ari zaiola, hitz egiten ari zaiola. Txori batek ezin du gezurrik esan kantatzen ari denean.

Abentura estetikoaren zaleek ez dute kontsolamendua Jose Luis Otamendiren *Erlojuen mekanika*n aurkituko, hori segurua. Klasikoa eta posmodernoa da era berean liburu hau. Ez dakar ahapaldiz ahapaldi norabidez aldatzen den diskurtsorik, ezpada esanahiaren poesia, igerilariaren poesia, besarkadari eusten diona gurutzatzeko itsasoak, itsasoak eta itsasoak. ■

Hirurogei urte eta hainbat galdera Israelen inguruan


60 urte bete zituen joan den urtean Israelek –nolabait “ospatzeko” edo, hilabete batzuk beranduago Gazari odola atereaz–; eta Fito Rodriguezek, urteurrenarekin bat eginez, liburu mamitsua argitaratu du, *Utriusque Vasconiae* argitaletxearen eskutik. *Jerusalem, Xalimen biria* liburuan harresiaren ateak dira protagonista: haietan zehar begiratuta osatu du Rodriguezek obra hau, elkarriketa modura aurkeztu arren, saiakeratzat ere har litekeena. Elkarriketan protagonistak, lau: Josu, Miren eta Joxe ikasleak, batetik, eta Artizarne irakaslea bestetik. Solasak elkarbizitzari buruzko gogoetak ekartzen ditu, baita Israelgo gatazkaren muinak ikertzeko asmoa ere. Joxemiel Bidadorre idatzi du hitzaurrea. ■



Jerusalem...
Fito Rodriguez.
Utriusque Vasconiae.
109 orrialde.
15 euro.

Nobela irabazi zuen idazlearen nobela

Nobela duzu Doris Lessingen *Belarra kantari*, birritan gainera: batetik, eleberria delako, eta bestetik, haren egileak 2007an Nobel Saria eskuratu zuelako. XXII. Jokin Zaitegi Sarikeita irabazita euskaratu du Koro Navarrok idazle britainiarraren obrarik esanguratsuenetarikoa den hau. Heriotza batekin hasten da istorioa, eta momentu horretara iristeraino protagonistek izan dituzten gorabeherak azaltzen ditu. Nekazari pobreen alaba, Mary hirira alde egin zutenetako da. Han bizimodu erosoa izatea lortu du, baina nekazari errukarri batekin ezkondu eta pikutara joango da dena. Afrika hegoaldean girotua, Lessingen obra honek klase bereizkeria eta arrazakeria ditu ardatz. ■



Belarra kantari.
Doris Lessing.
Elkar.
289 orrialde.
20 euro.